- Crip theory aniztasun funtzionala duen kolektiboak hartutako mugimendua izango litzateke.
- **TRANSFEMINISMOA- Transmaribollo feminismoa**
- Terf-k diskurtsoek diotenaren kontra, nahiz eta politikoki gizon edo emakume bezala aliniatuta egon, trans pertsonak ez dute "pribilegiarik".
- Ez dituzke gizon Cis-en pribilegio berdinak. Maskulinitate hori fetitxizatu (hipersexualizatu) edo gaitzetsia izaten da.
- Eta oraindik ere LGBTIQ+ komunitatearen baitan, **afeminatua subalternitate** batean dago, dagoen gorputzean dagoela.
- **Interseksionalitatea:**
 - 1989an, Kimberlé Crenshaw interseksionalitatearen kontzeptua erabili arraza/etnia-genero-klaseak elkarreragiten duten modu desberdinak eta emakume beltzen ibilbideak osatzen dituzten dimentsio eta zapalkuntza anitzak nola sortzen diren adierazteko (Crenshaw 1989).
- **TRANSGENERO ETA TRANSEXUALITATEA**
- **Sexu-genero dualtasuna**
- Gizartean historikoki bi sexu daudela onartu izan eta genero kontzeptua duela gutxi sartu.
- Sexuaz edo generoaz ari bagara, pertsonen banaketa dual bera egin da: emakumeak edo gizonak.
- Gizartea da sexu eta genero kontzeptuen eta horien kategorien arteko harremana zehazten duena.
- Uste da sexua abiapuntutzat hartuta eraikitzen dela genero bakoitza: Naturak pertsona (sexu kontzeptua) bakoitzari egokitu diona oinarritzat hartuta:
 - Gizarteratzean hartzen direla gizarte bakoitzak genero bietako bakoitzari ezarri dizkion eginkizunak, balioak, arauak eta itzaropenak.
- Hori horrela, emakume-sexua emakume-generoarekin lotzen dela zehaztu eta gizon-sexua gizon-generoarekin.
- Guztia ezarrita. Sexua eta bere kategoriak, generoa zer den, nola eraikitzen den eta bere kategoriak zein diren.
- Errealitateak erakutsi du hori ez dela horrela pertsona ororentzat. Arrazoiak:
 - Pertsona guztiek ez dute beren burua bi generoetako batean kokatzen. Badago bere burua emakumea eta gizona izatearekin identifikatzen ez duenik edo aldiz momentu berean biekin.
 - Pertsona guztiak ez dute beren generoa beren sexu biologikoarekin identifikatzen

- Pertsona guztiek ez dute beren burua bi sexuetako batean kokatzen. Pertsona intersexualak eta hermafroditak: jaiotzetik gizon eta emakumeen ezaugarri biologikoak aldi berean dituztenak.
- Pertsona horien errealitatea ez dator bat gizartean ezarritako errealitatearekin.
- Horregatik, gizarteak berak erantzuna eman behar izan du, horretarako teoriak garatuta, azalpenak bilatuta, oreka falta hori identifikatzeko, azaltzeko eta, batez ere, kontrolatzeko eta erregulatzeko kontzeptuak sortuta
- Horri buruz gizarteak oinarritzko galderak. Desoreka horren arrazoia dago:
 - Arrazoia biologikoa da? Kulturala? Edo kapritxo bat? Bestalde, izendatzeko, mugatzeko, etiketa jartzeko eta ezaugarriak emateko beharra dago.
- Orduan sortzen dira terminoak: genero disforia, transexualitatea, transgeneroa.
- **Sexua:**
- Sexuaren kontzeptua pertsonaren osagai biologikoari lotu, eta praktikan pertsonaren kanpoko organo sexualei (genitalak, ezaugarri fisikoak, etab.)
 - Kontzeptu horrek sexuaren definizio mugatuan ohikoak direnak baino alderdi gehiago hartu barne.
- Badago osagai biologikoagoa eta determinista duen sexu esleipen bat; jaiotzean ezartzen da eta pertsona gizon edo emakume gisa sailkatzen du.
- Sentitutako sexu bat ere badago (psikologikoa edo nortasunekoa) eta pertsonak bera identifikatzen duela sentitzen duen sexuaren adierazgarri da hori.
- **Generoa**
- Generoa: gizartearen lana, sexu biologikoa oinarritzat hartzen duen gizarteko sexua da eta osagai soziokulturala gehitzen dio:
 - Gizonezkoiei eta emakumezkoiei gizarteak ezarritako eginkizunak, balioak eta espektatiba sozialak.
- Pertsona bakoitza nola sentitzen den ere aipatu: gizona edo emakumea, keinuak eta jokabideak.
- Hizkuntzaren Errege Akademiak (Real Academia de la Lengua) termino horiek beste modu batera definitu:
 - Sexuak pertsonak bi kategoriatan banatzen dituela,: gizonak eta emakumeak,
 - Generoak pertsonak edo gauzak bi kategoriatan banatu: maskulinoa eta femeninoa
 - Zenbait kasutan, genero neutroa.
 - Akademiaren arabera, pertsonen sexua dute eta hitzek generoa.
- Sexu hitza alde biologikoari dagokio eta genero hitza alde kulturalari. Azken hau ingeleseko gender hitzetik itzulita, baina ingelesez sexua esan nahi du.
- **Genero identitatea/ sexu nortasuna**
- “Norberaren banakotasun maskulino edo femeninoaren pertzepzioa, bakarra eta iraunkorra” genero identitate edo sexu nortasun gisa ezagutu.
- Teoria batzuen arabera, identitate hori hezkuntzaren emaitza da Gizartean ikasten dela gizon edo emakume izaten.
- Badago haur gehienek haurtzaroan, bi eta lau urte artean, generoa barneratuta dutela erakusten duen ikerketarik.
- **Orientazio sexuala**
- Orientazio sexuala kontzeptu desberdina, maiz nahasten den arren.
- Orientazio sexuala pertsona batek gizonekiko edo emakumeekiko sentitzen duen erakarpenari buruzkoa.

- Horren arabera, gizartean pertsonak heterosexual, homosexual, bisexual edo asexual gisa sailkatu.
- **Transexual Transgenero**

TRANSEXUAL	TRANSGENERO
<p>Transexual kontzeptua beren burua sexu biologikoaren aurkakoa den sexu bakarrarekin (gizon edo emakume) identifikatzen dutenei dagokie. Gizon edo emakume direla pentsatzen dutenen taldeko batzuek pentsatu: aldaketa fisikoak egitea beharrezkoa eta sexu organoak berresleitzeko ebakuntza kirurgikoekin amaitu behar dela. Beste batzuek ez diete beren buruei kirurgia genitala planteatzen.</p>	<p>Transgenero kontzeptua beren burua gizon edo emakume gisa soilik identifikatzen ez duten pertsoneri dagokie, ezeinekin identifikatzen ez dutelako edo baita biekin identifikatzen dutelako ere.</p>

- **Azalpen biologikoa**
- Pertsonak sentitzen duenaren eta gizartean beregandik espero denaren artean dagoen desadostasunaren arrazoiak azaltzeko garaian lehenengo bilaketetako bat eremu biologikoan egin
- Egindako ikerketen arabera sexu garapena esku-hartzen duten eragileen artean era harmonikoan gertatzen bada: pertsonaren sexua gizona edo emakumea izan.
- Batzuetan garapen horretan akatsak edo aldaerak, intersexualitate kasu edo egoerak, sexu nortasuneko desadostasunekin harremanik dutela frogatu ez arren.
- Intersexualitate egoera horiek hainbat taldetan sailkatu pseudohermafroditismo femeninoa edo maskulinoa, disgenesia eta benetako hermafroditismoa.
- Sexu kromosomikoari dagokionez bi sexuen kanpoko ezaugarriak edukitzeagatik eta kanpoko genitalak guztiz garatu gabe izateagatik anbiguitasun genitala duten kasuetan bi jarduera posible:
 - Aukera zabalduena: zuzenketa kirurgiko eta hormonalen bidez gizon edo emakume sexua esleitzea, klinikoki sexu nagusia zein den baloratu ondoren.
 - Berriki, zenbait profesionalak itxaron pertsonak bere sexu nortasuna garatzen duen arte sexua esleitzeko
- Zailagoa neurri hori medikuntza praktiketan sartzeari, kontu etikoengatik. Pertsonari bere bizitzako une batzuetan, ezaugarri anbiguoekin bizitzea edo ez ekarri.
- Transexualitatea, intersexualitatea bezalaxe, ez litzateke arazo edo nahaste psikiatrikotzat jo behar.
- Dirudienez, Harry Benjamin berak ere azalpen biologikoa psikologikoa baino onargarriagoa zela zioen.
- Azalpen biologikoen artean alderdi organikoak ere aipatu:
 - Jaio aurretiko bereizketa hipotalamikoa, transexualak diren gizon eta emakumeetan testosterona kopuru baxuagoa, lobulu tenporaleko anomalia espezifikokoak...
- Hala ere, oinarritzat hartutako ebidentziak ez nahikoa horri buruzko behin betiko ondorioak ezartzeko.
- **Azalpen psikosoziala**
- Ikuspegi psikosozialetik, badago transexualitatea azaltzeko Moneyren ikaskuntzaren eraginari buruzko teoria egokitzat jotzen duenik.

- Teoria horren arabera, pertsonak hezterakoan ikasten dute emakume edo gizon izaten.
- Hortaz, pertsona bat ikaskuntza eredu horretan modu desegokian hezi izanaren emaitza izango litzake transexualitatea:
 - Gurasoek haurraren sexu biologikoari dagokion rola nahikoa indartu ez dutelako edo beste sexuari dagokion jokabidea gehiegi indartu dutelako.
- Horrek sexu nortasunaren garapen desegokia eragin.
- Traumaren teoriak adibidez, partaidetza edo nortasun sentipenek sortzen duten afektu gabezia adierazi, eta gabezia horren erantzuna: nahi denarekin identifikatzea.
- Beste ikuspegi batetik: Transexualitatea mekanismo bat:
 - Pertsona batek homosexuala dela onartu gabe, bere sexu bereko beste pertsonekin erlazionatzeko ezartzen duen mekanismoa,.
- **Azalpen psikiatrikoa**
- Transexualitatea edo transgeneroa gaixotasuntzat jotzea eztabaida eta polemika gehien sortzen duen gaietako bat.
- Transexualitatea ez da gaixotasuna.
- Psikiatriako patologia gisa nahasteez hitz egin, kasu honetan, buruko nahasteez.
- Buruko nahaste terminoa gaur egun psikiatriako patologiaren gaian garrantzitsuenak diren bi sailkapen sistemetan jaso:
 - Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, GNS-10, OME egina, buruko beste gaixotasun batzuk eta egoera patologikoak barne hartu.
 - Buruko Nahasteen Diagnosi eta Estatistika Eskuliburua, DSM-IV-BN, Amerikako Psikiatria Elkarteak egina.
- Definizio horren arabera transexualitatea buruko nahastea da: “oinazea... eta ezgaitasuna sortzen duten sintoma psikologikoen multzoa eragiten duelako (...gizarte, lan edo beste esparru batzuetan gaizki sentitzea)”.
 - **Azalpen soziokulturala**
 - Transexualitateari eta transgeneroari ikuspegi sozialetik heltzen dioten beste diziplina batzuk
 - Transexualitatea eta transgeneroa azaltzeko soziologia edo antropologia bezalako diziplinetan barneratzeak diagnosi sozial gisa ezagutzen denetik kanpo geratzen den azterketa dakar
 - Teoria horien bidez gizarteko erantzuna gehiago azaltzen dela kausa baino: zer esan nahi du transgeneroak? Eta transexualitateak?
 - Gizarte askotan gertatzen den fenomeno da, eta gizarte bakoitzak erantzun bat eman
 - Kultura batzuetan egoera hori onartu eta goretsi; pertsonari santutasun maila edo gizarte maila pribilegiatua eman
 - Adibide asko: Samoako mutikoak daude, sexu femeninorako joera dutenak edo Margaret Mead antropologoak deskribatutako tchambouli gizonak
 - Beste kultura batzuetan, gehienbat Mendebaldean, gizartean espero den jokabidea desbideratzea da
 - Indarrean dagoen legeria, gutxiespen soziala, bazterkeria eta gehiegizko patologizazio medikoa– gizarteak zigortzen duen pertsona.
 - Izan ere, gure mendebaldeko kulturaren bekatua dela edo gizartearekiko desbideratzea dela pentsatzetik, gaixotasuna dela pentsatzera pasatu eta hortik egoera edo izaera dela pentsatzera.


- Gizarteetan normaltzat jotzen direnak edo onartzen direnak gehiengoek dituzten jokabideak dira eta jokabide horiek araua dute, hau da, normala dena.
- Transgeneroak eta transexualitateak, normaltasunetik aldentzen direnez jokabide anormalak barne hartu eta horiei “jokabide desbideratuak” etiketa jarri.
- Jokabide desbideratua gizarteak ematen duen etiketa dela onartzeak desbideratzea ez dela pertsonari berez dagokiona esan nahi, ez dela pertsonaren nortasuneko zati.
- Anormaltasun horren zati bat, adierazi dugun moduan, pertsonak bere sentitutako sexua bere sexu biologikoarekin identifikatzen ez duelako gertatzen da.
- Baina beste zati bat gertatzen da ez dagoenean bi sexuetakoko batekiko identifikaziorik eta, hortaz, beste sexua bazter uzten ez denean.
- Hori gertatzen da, gure kulturari bi kategoria soilik onartzen direlako, bai sexuaz bai generoaz ari garenean
- **Azalpen sexologikoa**
- **Autosexazioa:** Pertsonak beren burua sexu batean edo bestean sailkatzea
- **Alosexazioa:** Gizarteak berak +beste pertsonen sailkapena egiten du, ez bere buruarena, besteena baizik;
- **Indukzio autosexantea:** Sailkatzeko bi modu horien artean hainbat mekanismo eratzen da bat etortzeko helburuarekin.
- Transexualitateari dagokionez, autosexazioa eta alosexazioaren artean inkoherentzia edo desadostasuna gertatu

3. GAIA: GIZARTE BAZTERKETA

- **GIZARTE BAZTERKETA**
- Gure gizarteak berez bazterkorak, baztertu egiten dute
- Gizarteratze edo inklusioa bilatzeko ahaleginak egin
- Kontraesana: Gizartertze ahaleginak baztertzailerak den egitura baten baitan egin
 - Ez planteatu egitura hori aldatzea gehiago bazterkeriatik gertatu ez dadin, baizik eta gertatzen den bazterkeria horren gainean nolabait partxeak jartzea
- **NAHASTE TERMINOLOGIKOA**
 - Marginazioa
 - Pobrezia
 - Gizarte bazterkeria
- Prozesu dinamika (une batetan egoera horretan egoteak ez esan alda ezina denik)
- Dimentsio antzekoa (esparru ugari hartzen ditu bere gain: enplegua, egoera ekonomikoa, hezkuntza, gizarte harremanak)
 - Azken biak gizarte bazterkeriaren ezaugarri nagusiak
- **MARGINAZIOA:**
 - Prozesua adierazi nahi duela eta bazterkeriak, ordea, prozesu horren bukaera, hau da, marginazio (eta deserrotze) prozesu horren burutzea dela esan
- **POBREZIA:**
 - Bazterkeria terminoa baino mugatuagoa. Bizitza duina ez izateko arrazoia material-baliabideen falta litzateke.
 - Pobrezia egoeran daude baliabideak gizabanakoaren edo familiaren eskakizunak (beharrak) baino askoz beherago daudenean:

- Baztertuta komunak diren jarduera, tradizio eta bizitzeko eretatik (baliabidegabeziagatik zenbait esparrutatik at edo baztertuta).
- Pobrezia horrela ulertuta material eskasiari egin erreferentzia. Beraz, zenbatu ahal den zenbait.
- Bazterkeriak ez dakar beti baliabidegabeziak. Hori ekar dezake adibidez arau sozialetatik desbideratzeak ere.
 - Trans pertsonen egoera aztertzerakoan ikusitakoa: normaltasuna sexu-genero dualtasunean ezarri, horretatik at dagoena desbideratutzat jo
 - 1. **Muturreko pobrezia:** Familiek ez dutela bizirauteko behar diren oinarrizko beharrik. Gose kronikoa jasan, osasun-zerbitzurik ez, edateko ur-hornidura eta saneamendurako zerbitzurik ez, beren seme-alaben baten edo guztien ikasketarik ezin ordaindu...
 - 2. **Tarteko pobrezia:** Bizitzeko oinarrizko zenbait baldintza badutela, baina estu-estu bakarrik, hau da, urritasun handia dagoela esan dezakegu.
 - 3. **Pobrezia erlatiboa:** Familiaren dirusarrerak ezarritako maila jakin bat, batz besteko nazio-errenta kontuan hartuta, baino txikiagoak direla. Errenta handiko herrialdeetan bizi diren pobreak ezin dira heldu ez kultura ondasunetara, ez dibertimendu eta aisiazko ekintzetara, ez kalitatezko hezkuntza eta osasun zerbitzuetara...
- Sere Paugam-en sailkapena:
 1. **Pobrezia integratua:** Barruan sartzen diren pertsonen "pobre" izena. Asko dira eta biztanleriaren beste talde batzuetatik ez dira bereizten. Beren egoera oso ohikoa. Haiei buruz ari garenean betidanik pobrea izan den eskualde edo inguruari buruz hitz egin. Gizarte-talde handiko kideak direnez, ez ditugu estigmatizatzen. Beren bizi-maila baxua, baina gizarte-sare antolatuen barnean jarraitu eta ez diegu ematen gutxiesten den estatusik.
 2. **Pobrezia marjinatua:** Pobreza marjinetan erlazio mota bat adierazi da eta bertan "pobreak" edo "baztertuak" deiturikoen populazioaren zati txikia osatu. Garapen industrialak ezarri duen erritmoari eta arauari jarraitu ezin izan dietenak. Erakunde sozialek ez dute uste pertsona talde hori kanpoko laguntza gabe gizarteratzeko gai denik. Debate soziala ez da antolatzen populazioaren bazterturiko alde horietan, baizik eta profesionalkideen artean ondasun-banaketa buruz. Estigmatizatuta daudenez, egia da ezin direla askatu gizarte-profesionalek beraiengan duten tutoretzatik
 3. **Pobrezia gutxieskorra:** Pertsonak gutxiesten dituen pobrezaren funtsean gero eta "pobre" eta "baztertu" gehiago dagoen gizarte-erlazioa dago. Produkzio-eremuk sarrerak ixten zaizkie eta gizarte ekintzeko erakundeen mendeko bihurtzen dira, eta horrek gero eta arazo gehiago dakar. (...) Era berean, gero eta gehiago dira lana kolokan dutenak eta, horren ondorioz, desabantaila asko izateko egoerak pilatzen dira: diru-sarrera txikiak, bizileku eta osasun baldintza eskasak, familia egoera eta laguntza pribatuko gizarterko sareak hauskorrak dira...

- **GIZARTE BAZTERKERIA:**



Pobrezia egoerarik biltzen ez duen bazterkeria egoera baten adibidea:	Bazterkeria egoerarik ez dakarren pobrezia egoeraren adibidea:
Bulling kasu bat. Arrazakeria kasu bat, etorkin izateagatiko bazterkeria. LGTBIQ+ kolektiboa desbideratutzat jotzea.	Krisi ekonomikoa dela eta gaur egun pertsona gazte bat lanik gabe eta diru sarrerarik gabe egon daiteke, baina bere gurasoen babesari esker pisu bat ordaintzeko eta bere beharrei aurre egiteko dirua eta laguntza jaso dezake. (Gizarte sare sendo bat izatearen garrantzia nebarmentzen da hemen). Auzo pobre batean bizi bagara eta denak pobreak badira ez gara baztertuak sentituko.


- Soilik materialak eta baliabideak kontutan hartzetik, egiturari dagozkion espektuak kontutan hartzera pasa gara.
 - Pobrezia ez diolako erreferentzia egin baliabideak izate edo ez izate hutsari, baizik eta gizarteak horiek eskuratzeko ematen dituen aukerei ere bai
- Edonola ere, bazterkeria ez da ez marjinazioa eta ez pobrezia:
 - Marjinazioa prozesua litzatekeelako eta bazterkeria emaitza.
 - Pobrezia bazterkeriaren barne, baina ez derrigorrean loturik joan.
 - Bazterkeria egoera guztiek ez dute biltzen pobrezia egoera larriak, eta pobrezia egoera guztiak ez dira bazterkeria egoerak.

- **Gizarte bazterkeria eta pobrezia**

POBREZIA	GIZARTE BAZTERKERIA
Estatikoa Norbanakoaren izaera Norbanakoak pairatuta Gizarte industrialak Dimentsio bakarria Gabezi ekonomikoa nagusitatzat	Dinamikoa Egiturazko izaera Gizarte taldeak Gizarte pos-industrialak Dimentsio anitzekoa Gabezi mota ezberdinak

- **Gizarte bazterkeriaren ezaugarriak**
- Egiturazko fenomenoak: Arazoa ez norbanakoarena. Gizarte posindustrialaren ondorio.
- Fenomeno dinamikoak: Prozesua eta ez egoera bat. Bizitzaren aldaketen arabera. Momentuaren arabera egoera aldatu daiteke.

- **Multidimentsionala:** Ez dago arrazoi bakarra, izaera konplexua, faktore ezberdinak elkar-harremanean: hezkuntza, bizi-tokia, generoa, etnia, pobrezia, osasuna, lan-ezegonkortasuna, monoparentalitatea...
- **Izaera politikoa:** Ez da gauza naturala, izaera soziala eta politikoa du. Beraz politika publikoen bidez bideratu edo baretu daiteke.
- **Integrazio-bazterkeria binomioa ez da nahikoa**




- **Gizarte zaugarritasuna**
- Zeharka eta erlatiboki integratuta daudenak
- Segurtasun eza, ahultasuna euren integrazioan (aurreko eskema).
- Hainbat kolektibo: langile pobreak, etorkinak, emakumeak, LGBTIQ+, gazteak, adinekoak...
- **Erantzunak**
- Gizarte-zaugarritasuna eta gizarte bazterkeria: Dirusarrerak bermatzeko Errenta (Oinarrizko errenta).
- Muturreko Gizarte-bazterkeria (etxerik gabeko pertsonak): Aterpetxeak, jantokiak eta eguneko egoitzak (Baliabideen triangela).

GIZARTE BAZTERKERIA

PROZESU DINAMIKOAK


1.2. Irudia: Gizarte jakin batetan bazterkeriatik gizarteratzera doazen guneak



Dimentsio anitzekoa

<p>1. DIMENTSION EKONOMIKOA</p>	<p>1.1. Ekoizpen edo produkzioan parte hartzea. Funtsean lan merkatuan parte hartzea. Horretan parte hartuko ez balitz soldata egonkorrik ez genuke izango, gure eguneroko beharrei aurre egiten uzten diguna.</p>
	<p>1.2. Kontsumoan parte hartzea. Aurrekoari lotuta, soldata edo diru iturri bat ez badugu, ezingo ditugu gure beharrik ase, beharrezkoak zaizkigun produktu edota zerbitzuak erosi. Baliabideen gabeziari lotuta dago beraz.</p>
<p>2. DIMENTSION POLITIKOA</p>	<p>2.1. Hiritartasun politikoa. Eskubide politikoak gauzatzeko aukera izatea, parte hartze politikoa; boto eskubidea oro har. (Etorkinen kasuan hainbatetan eskubide hau gauzatzeko ezintasuna agertzen da, paperik ez izateari lotuta. Antzinan esklabuak, emakumeak).</p> <p>2.2. Hiritartasun soziala. Gizarte hiritartasuna. Babes sistema desberdinetara sarbidea izatea: osasuna, etxebizitza, hezkuntza, gizarte zerbitzuak (DBE), etab. (Etorkinen kasuan berriro ere eskubide hau gauzatzeko ezintasuna izan dezakete, paperik ez izateari lotuta).</p>
<p>3. HARREMANEN DIMENTSIONA</p>	<p>3.1. Gizarte harremanen gabezia. Gizarte isolamendua, gizarte laguntasun falta.</p> <p>3.2. Gizarte harreman gaiztoak edo ezkorrak. <u>Gizarte sare desbideratuetan sartzea</u>, <u>Gizarte gatazkak</u> (jokabide anomikoak, araurik gabe, jardutea), eta <u>gatazka familiarrak</u> (etxeko indarkeria, familia desegituratuak).</p>

DIMENTSIO ANITZEKOIA



HIRITARTASUNA:

- HIRITARTASUN ERREPUBLIKARRA:

Gizartearen partaidetza eraginkorrean oinarritu. Jarduera politikoa bideratu behar guztion ongia lortzeko, eta helburu honek lehentasuna bakoitzaren ongiaren aurretik ikuspuntu horretatik partaidetza ulertu gizarte esparruan era globalean zabaldu behar diren interesen betebeharrak gisa. Esate baterako, justizia izatea. Ikuspuntu honen problema da nola orekatu esparru publikoko partaidetza-prozesu hori gizabanako bakoitzak era legitimoan bilatzen dituen nahi partikularrekin.

- HIRITARTASUN LIBERALA:

Hiritartasuna pertsona orori dagokio eskubide politikoak eta zibilak dituen aldetik. Autonomia pertsonala: ikuspuntu horretatik ezaugarri bereizgarriena. Esparru publikoan, askatasun pertsonalak bermatzea da estatuaren betebeharrak. Ikuskera horren mugak (eta kontraesanak) ezagunak dira: desberdintasun materiala ontzat hartzen du, eta hori bidegabeki jasatendutenei autonomia eta askatasuna garatzea ezinezkoa dute. Eskubide eta erantzukizunen (betebeharrak) arteko desoreka oso nabarmena.

- HIRITARTASUN SOZIALA:

Ikuspegi hori saiatu bideratzen muturreko ikuskera liberalaren mugak, eta hiritartasuna aitortzeko kontuan hartzen ditu eskubide zibilak eta politikoak ez ezik, eskubide ekonomiko eta sozialak ere. Estatuak ez ditu askatasun ibilbideak bakarrik bermatu behar, baizik eta hiritar guztiek eskubide sozial horietaz baliatu ahal izatea ere bermatu eta babestu behar du, eta horretarako aukera-berdintasunerako politikak sustatu behar ditu. Gizarteko partaideak askatasunaz eta autonomiaz baliatu ahal dira, baina ekitatiboak diren gizarte baldintzetan. Ikuspegi horren puntu ahulak (eta arriskuak) ere ezagunak dira:

- Estatu paternalista eta hiritar adingabetuak, erantzukizunak hartzeaz baina eskubideak eskatzeaz arduratzen direnak;
- Zailtasunak ezartzeko zeintzuk diren beharrak asetzeko bermearen exigentziaren mugak.

Bi ardatz hartu erakunde publikoek gizarte-ekintzen ekimenak bultzatzek: gizarte-bazterkeria eta mendekotasun funtzionala

- KULTURANITZEKO HIRITARTASUNA:

Eskatzen du esparru kulturalaren lehentasuna eta identitate eskubideak aitortzea ezinbesteko elementu hiritartasun kondiziorako. Garrantzia handiago ematen diote "desberdintasun politika"ri eta desberdina izateko eskubidearen aitortzeari. Hiritartasun diferentziatua da gero eta gehiago nagusitzen ari den kontzeptua hurbilketa horren esanahia azaltzeko: hiritartasun malguta eta asimetrikoa, zeini ordezkatzeko eskubide bereziak

onartzen zaizkion (adin-talde, nazionalitate, genero, sexu-joera eta abarren arabera), eta kulturantzeko eskubideen aitortzearen gauzatzen den.

- **HIRITARTASUN KONPLEXUA EDO KOSMOPOLITA:**

Hiritartasunaren aurreko adierak loturik daude “zerbaiten barnean izate” jakin bati (estatuari, elkarteari, gizarte-taldeari eta abarri). Ikusteko era honek, ikuspegi kosmopolita hartu eta lehengo “zerbaiten barruan izate” hark zentzu desberdinak hartu (transnazionalitatea). Sustraituriko kosmopolitismo ideia kontuan hartuta, berezkoaren onarpena (gure herrikoa izatea) adierazi, baina, aldi berean, zabalik dago justizia globalera, zein nazioarteko justiziaren alde egiten duen. Hiritartasun horri hiritartasun konplexua ere deitzen zaio: ikuspegi transnazionaletik eratzten da eta identitate anitzak izatearen aitortzea esan nahi, talde- pertenezkoak baieztatuz askatasun eraginkorrean.

Gizarte-zaingarritasuna

- Zeharka eta erlatiboki integratuta daudenak
- Segurtasun eza, ahultasuna euren integrazioan (aurreko eskema).
- Hainbat kolektibo: langile pobreak, etorkinak, emakumeak, gazteak, hirugarren adina...
- Gizarte-zaingarritasuna eta gizarte bazterkeria: Dirusarrerak bermatzeko Errenta (Oinarrizko errenta).
- Muturreko Gizarte-bazterkeria (etxerik gabeko pertsonak): Aterpetxeak, jantokiak eta eguneko egoitzak (Baliabideen triangela)

- **FRANTZIAKO KASUA ETA LE HAINE KONTEXTUALIZATZEN**

- Frantzia 2005 Pariseko periferiako auzoetan iraultza bat eta oso azkar frantzia guztian zehar zabaltzen da
- Gutxiengo etnikoen kideek egiten duten iraultza bat da.
- Inmigranteen seme-alabak dira, Frantzia jaioak eta bertako hezkuntza sisteman ikasi dutenak.
- 3 asteetan zehar ematen da, 8.500 kotxe erretzen dituzte 2.800 pertsona atxilotuak dira.
- Frantziako erdi eta goi klaseko pertsonak ez zuten hau espero, harriturik daude...: *baino... nola liteke hiritar talde honek, gainontzekoek bezelako aukerak ez izatea?*
- Frantziako gutxiengo etnikoak integartzeko ereduak ez da egokia izan, izan ere ez ditu aukera berdinak sortu guztientzat.
- Diskriminazioa dago lan bat bilatzerako orduan, baina hau “ezkutatu” egiten da, izan ere errepublikaren printzipioen kontra doa.
- Hezkuntza sistemak ere porrot egin du, ez dizkie gutxiengo etnikoei aukera berdinak ematen.
- Frantziako periferiak pobrezia eta bazterkeria jasaten dute, eta horrela azpi klase etniko bat sortzen da.
- 2005-eko iraultzak tentsio hauen ondorio dira.